

14. Buletina

Abenduak 2013

LAN OSASUN BULETINA

AURKIBIDEA:

1. REFIT

2. NAFARROAKO LAN-SEGURTASUN ETA -OSASUNeko KONTSEILUAREN BILERA

3. ESPAINIAR GOBERNUA MUTUALITATEEN LEGE BERRIA PRESTATZEN ARI DA

4. EUSKAL HERRIKO JUSTIZI AUZITEGI NAGUSIAK, UNIVERSAL MUTUALITATEAREN KONTRAKO SENTENTZIA BAIEZTATZEN DU HAURDUNALDIAN ZEGOEN ATS/DUE BATEN ARRISKUEN INGURUAN

5. LAN ISTRIPU MORTALEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, ABENDUAK 2013

14. Buletina

Abenduak 2013

1. REFIT

Joan den urriaren 2an Europar Batzordeak programa handi bat ezagutarazi zuen, Refit izenekoa (“hazteko argaldu”), ustez Europar Batasuneko legedia berrikusi eta “zaharkitutako edo ezdeusak diren legeak kendu eta soiltzeko”, eta asmo berarekin garatzen ari diren legegaiak alde batera uzteko.

Hots, “sinplifikatzeko” itxura emanaz benetako desarautze bati ekin nahi diote, helburu nagusi batekin, enpresentzako “beharrezko ez diren” kargak murriztea. Bada, Batzordea beldur da karga horiek edo gehiegizko paperek hazkunde ekonomikoa eragotzi egin dezaketela, batik bat enpresa txiki eta ertainei.

Batzordeak horretarako aurkeztu duen planak, hartara, 2013an eta 2014an hainbat Zuzentarau aldatzeko xedea du: Informazio eta Kontsultari buruzkoa, Aldi Baterako Lan-Agentziena, Datuen Babesari buruzkoa, Lekuz aldatutako langileei buruzkoa eta Lanaldiaren ingurukoa.

Batzordearen oharrean aipamen berezia egiten da lan-segurtasun eta -osasunari buruz. Diotenez, gai honekiko irekita dauden eztabaida guztiak artxibatu egingo dira 2014an Batzorde berri bat lanean hasi arte.

Erabaki honen ondorioz, Europako milioika langileren bizimoduan eta osasunean eragin handia duten gaiak aidean geratuko dira, esaterako arazo muskuloesketikoei buruzko Zuzentarauek edota lanak eragindako kantzerrari buruzko EBko araudiaren hobekuntza.

Oso litekeena da desarautzeak lan-osasun eta -segurtasuna eta gizarte- eta ingurumen-babesa okertzea, eta langileen informazio- eta kontsulta-eskubidea mugatzea.

Urriaren 28an Europar Kontseiluaren bileran honen aldeko jarrerarik tinkoena Erresuma Batuko, Holandako, Danimarkako, Finlandiako, Alemaniako eta Italiako gobernuek agertu zuten; hauen esantean lege konplexu, zurrun, injustu eta gehiegizkoak daude, eta horiek traba egiten omen diote “business”ari.

Hau eredu europar neoliberalaren beste adibide bat dugu; Europar Batasuneko gobernuek men egiten diote. Lan-osasun eta -segurtasuneko araudia enpresen lehiakortasunerako eragozpen bihurtzen da, eta ez langile-klasearen osasuna babesteko berme.

Zalantzarik gabe, Batzordearen komunikazio honetatik lan-segurtasun eta osasuneko erreforma atzerakoiak etorriko dira etorkizunean.

2. NAFARROAKO LAN-SEGURTASUN ETA -OSASUNEKO KONTSEILUAREN BILERA

Azaroaren 25ean Nafarroako Lan-segurtasun eta -Osasuneko Kontseilua bildu zen. Gai-ordeneko puntu nagusia, CCOOek, UGTk eta CENek Lan-Arriskuen Prebentziorako Fundazioaren 2013ko deialdira aurkeztutako ekintzen balorazioa.

Izan ere, urtero bezala, Lan-Arriskuen Prebentziorako Fundazioaren funtsak (autonomia-erkidego bakoitzean dauden mutualitateen soberakinekin osatuak) ekintza prebentiboak egiteko jarri ohi dituzte haien eskura. Aurtengo deialdian Nafarroari 396.261,87 euro eman dizkiote.

Kontseiluaren bileran CENek, CCOOek eta UGTk proposatutako hainbat ekintzari onespena eman zitzaion. Ondorioz, erakunde horiek 132.078,77na euro jasoko dute, teoriarik lan-osasuneko ekintzak garatzeko.

Praktikan, aldiz, diru hori inolako kontrolik eta jarraipenik gabe erabiltzen da, eta sindikatu horien eta patronalaren beharrezko estrukturalak finantziatzeko izan ohi da. Esaterako, CCOOek eta UGTk arlo honetako ekintza gisa beren lan-osasuneko bulegoen finantziazioa aurkezten dute.

ELAk salatu egin du berriro erabiliko direla funts publikoak (kotizazio sozialetatik datozen soberakinak) patronala, CCOO eta UGT finantziatzeko. Hauen biziraupena langileen osasuna babestearen gainetik jartzen da.

Aurten ere aldarrikatu beharrean gaude diru hori zuzenean Nafarroara eta EAera iritsi behar dela, Madrilgo Fundaziotik pasa gabe. Lan-segurtasun eta -osasun arloan gure ereduak garatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu.

3. ESPAINIAR GOBERNUA MUTUALITATEEN LEGE BERRIA PRESTATZEN ARI DA

Abenduaren 5eko Ministro Kontseiluaren ostean Enplegu eta Gizarte-Segurantzako Bañez ministroak iragarri zuen espainiar Gobernuak laster Mutualitateen legegai bat erabakiko duela. Ministroaren esanetan, Gobernuak lege-aurreproiektua abenduaren 20an onartuko du, eta parlamentuan aztertzeko epea 2014ko uztaile arte luzatuko da.

Bañezek ziurtatu zuen lege berriarekin helburu bat dutela, "justifikatu gabeko absentismo laboralaren kudeaketa hobetzea eta erakundeok esku artean dituzten baliabide publikoen erabilpen egokia bermatzea".

Testua ezagutu ez arren, pentsa genezake erreforma berri honekin absentismoa aitzakia hartuta osasun-sistema publikoa pribatizatzeke bidean haratago joan nahi dutela, mutualitateei ahalmen eta eskumen gehiago emanaz.

ELAk sarri salatu izan du mutualitateek gertakizun arrunten kudeaketan gero eta botere handiagoa hartu dutela. Gertakizun hauetan alta emateko ahalmena besterik ez zaie falta. Noraino iritsiko dira lege berriarekin?

Laster ikusiko dugu. Baina argi dago edozer dela ere, negoziazio kolektiboan gai honi arreta bereziz jarraitu beharko zaiola, enpresetan galgarazteko gertakizun arrunten kudeaketa mutualitateen esku geratzea.

4. EUSKAL HERRIKO JUSTIZI AUZITEGI NAGUSIAK, UNIVERSAL MUTUALITATEAREN KONTRAKO SENTENTZIA BAIEZTATZEN DU HAURDUNALDIAN ZEGOEN ATS/DUE BATEN ARRISKUEN INGURUAN.

Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiak, Donostiako Auzitegi Sozialak esandakoa baieztatu du. Berton, osasun erresidentzi bateko langile bati haurdunaldian lan arriskuak izateagatik prestazioa jasotzeko eskubidea eskatu zuen momentutik aitortu diote, eta ez mutualitateak esan bezala 30. astetik aurrera.

Epai honek merezi duen analisi juridikotik haratago, baieztatu egiten du bai Auzitegi Nagusiak bai Donostiko Auzitegi Sozialak, prebentzio zerbitzuak eginiko arriskuaren ebaluaketari eman dioten garrantzia, kasu honetan bere lanpostuan zeuden arrisku guzti-guztiak aipatzen zituelako.

Aspaldidanik ari gara salatzen, mutualitateek esatea haurdun dauden langileei ez dutela arriskurik, edota arriskua txikia dela, eskubidea ezeztatu nahirik; honela prestazioa ahalik eta beranduen jasoko dute. Kasuren batean, areago, haurdun dagoen emakumeari esan diote osasun sistema publikora joateko, baja gertakari arrunt bezala eskatzeko, horrela “papeleo” guztiaz libratzen baita.

Sektore gehienetan, batez ere osasungintzan eta erresidentzietan, mutualitate gehienek zenbait arrisku mota besterik ez dute egiaztatzen dituzte, adibidez fisikoak arriskuak, pisuak eskuz hartzerakoan sortzen diren arriskuak, erradiazio arriskuak... Honetarako prestazioaren hasiera data kalkulatzeko SEGO edo INSS zerrendetan azaltzen direnak hartzen dituzte. Baina ez dituzte kontutan hartzen zenbait lan motak dakarten arriskua; adibidez, arrisku biologikoak kanpoan uzten dituzte, eta aipatutako bi sektore hauetan arrisku maila altua dute egiten dituzten lanengatik: bizi-konstanteak jaso, operazio aurreko eta osteko zainketa lanak, jaioberrien eta gaixoen zaintzak... agente kutsakorren arriskuak ugariak izateak egiten du kolektibo hau berezia; horregatik, arriskuen ebaluaketan arrisku biologikoak aintzat hartu behar dira.

Garrantzitsua da azpimarratzea arriskuen ebaluaketa modu parte hartzaile batean egin behar dela. Ebaluaketa honek gutxienez prebentzio legeak jasotzen dituen arrisku guztiak kontutan hartu behar ditu, hots, agente kimikoak, agente fisiko eta biologikoak, faktore ergonomikoak eta psikosozioologiakoak. Dударik balego, langileontzako prebentzio neurri onuragarrienak jaso beharko dira, haurdun dagoen langileari edo umekiari babes egokiena eskainiz, bere lanpostua eraldatuz edo lanpostu berri bat emanez. Epaitegietan gure eskubideak bermatzeko ere funtsezkoa da.

Kasu konkretu honetan, Universal mutualitatea zigortu egin dute langileari prestazioa eskatu zuen egunetik ordaintzera, nahiz eta langileak soldata ere jaso zuen lanean jarraitzeagatik.

5. LAN ISTRIPU MORTALEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, URTARRILA - ABENDUA 2013

HEH	ACCIDENTES MORTALES
BIZKAIA	13
GIPUZKOA	10
ARABA	4
NAVARRA	5
TOTAL	32

*Abenduaren 11 arte